

ONDARROA. EAJk eta PPk ezetz esan eben, eta EAko zinegotzia ez zan batzarrean egon

EHren botoak nahikoak izan dira ia 10 milioi euroko aurrekontua onartzeko

«Gure apostua beti izan da inbertsinoetan arriskatzea», esan dau EHk


Lore Bengoetxea

Ondarroako Udalak 9.678.855 euroko aurrekontua onartu dau aurtengo jarduerarako (1.610.425.968 pezeta). EHk egindako proposamenak bere taldekoen botuak baino ez eban lortu, EAJk eta PPk ezetz esan eben eta. Beste alde batetik, EAko zinegotzia ez zan Udalbatzarrean izan.

EAJren ustez (oposizino talde nagusia), aurrekontuak ez dagoz orekatuta. «Diru gehiena gastu arruntetara zuzendu da, eta inbertsinoen kapitulu orain hiru urte baino 20 milioi gehiago besterik ez dagoz», nabarmendu eban Aitor Oiarzabalek jeltzaleen jarrera azalduen.

EHkoek beste eritxi bat agertu eben. «Gure apostua beti izan da arriskatuagoa inbertsinoetan», esan eban Ogasun batzorde buru eta alderdi horretako zinegotzi Andoni Argoitiak. «Kaminiñazpi-Kaminiñaldeko urbanizazio proiektua Udalarren erronkarik handiena da», adierazo eban. EAJkoek, ostera, zalantzan jarri eben proiektua gauzatzeak eskatzen dauen dirutzeari erantzuteko gai izango ete zan Udala.

INBERTSINOAK



NEKANE AKARREGI

Arraun Alkartearen ezker eskuma, Gaztetxe beharrak eta Astillerukoak.

3.323.125 euro inbertsinoetan joango dira

EAJren ustez, Udalak txarto kudeatu ditu Telesforo Urrestik heredentzian lagatako akzinoak. EHren esanetan, ostera, inbertsinoak egiteko balio izan dau. Hemen garrantzitsuenak.

URIGINTZAN. Danetara, 3.060.389 euro gorde ditue. Urigintzako zereginen artean, honeek dagoz: Hondartzako argiak (6.000 euro), alameda txikiko argiak (3.600 euro), oztopo arkitektonikoak (12.000 euro), Igongailua (180.000 euro), komunak (48.100 euro), kaleak (36.000 euro), Gaztetxea (12.200 euro), Astilleruko urbanizazioa (57.489 euro) eta frontoia (2.705.000 euro).

KULTURAN. Lokalak ondo ipinten (27.000 euro), Kofradi zaharra konpontzen (60.000 euro) eta mojetako aretoan (3.060.389 euro) egingo dira inbertsinoak; danetara, 87.000 euro.

INGURUMENEAN. Lur-azpiko edukinontziak (24.000 euro), Zeledonion eguzki indarrari probetxua atarateko proiektua (25.000 euro) eta berdegune egokitzeko plana (25.000 euro) sartzen dira atal horretan; danetara, 74.000 euro.

BESTE BATZUK. Lokalak berreskuratzeko 42.100 euro gorde ditue eta zaharren egoitzako altzariak erosteko, 15.506 euro.

Txomin Agirre ikastoleak kultur eta kirol ekitaldiak antolatu ditu astebururako

L.B.

Txomin Agirre Kultur Astearen programearen barruan, hainbat ekitaldi prestatu ditue ganean daukagun astebururako. «Normalean gela barruan lantzen ditugun proiektuak gurasoei erakustera emotea da helburua», adierazo dabe ikastolakoek.

Gaur, ikastola barruan eta kanpoan gauzatuko ditue jarduerak. Barrura begira, txotxongiloen emonaldia eta kirola antolatu ditue goizerako. Jaialdiagaz borobilduko dabe

egitaraua. Kamarako Orkestra Sinfonikoa, abestiak koreografiagaz, antzerkia, upin-kontalaria, moda-desfilea, play-back eta bertsoak izango ditue, Kafe Antzokian, 17:30ean. Umeek euro bat ordaindu behar izango dabe sartzeko, eta nagusiek eta gurasoek, bi. Ikasle izandakoek afaria daukie ikastolan, 21:30ean, eta berbenea gero, Gauero taldeagaz.

Beste alde batetik, bihar zarratuko dabe Udalarren Erakusketa gelan antolatu daben erakusketea. Aste osoan, Sokrates Europako programan

parte-hartzen daben Lehen Hezkuntzako ikasleen beharrak jarri ditue danen bistan, eta baita programa horretan eurekin batera dagozan Italia, Gales, Frantzia eta Alemania-ko ikasleenak be.

Bizikleta martxea egingo dabe bihar

Ekitaldiekin amaitzeko, bizikleta martxea lotu dabe, bihar. 10:30ean hasi eta 13:00ak arte, hiru etapa egingo ditue: DBHko ikasle, guraso eta ikasle izandakoek Lekeitiara joko dabe, LH3tik 6ra arteko ikasleak ikastolatik Itxas Aurrera joango dira, eta HH eta LH 1 eta 2ko ikasleak be ez dira geratuko parte hartu barik, Itxas Aurren eurentzat zirkuitoa prestatu dabe eta.

AGENDA

LEKEITIO

Showa: Korralean, 22:30ean, Humpreyren showa antolatu dabe.

Erakusketea: Euskal Herriko antxinako bizimodua erakutsiko dabe, postaletan, Barandiaran aretoan. Erakusketea hilaren 12ra arte egongo da zabalik.

ONDARROA

Kafe Antzokia: Ska-Reggae gaua antolatu dabe, Akatz eta The Cyprinidians taldeekin. Sarrerak Lekeitioko Ganbaran, Markinako Iruzubi tabernan, Mutrikuko Badi bodegoian eta Ondarroako Zurrumurrun eta Kafe Antzokian dagoz, bost eurotan (txarteldegian, sei euro dira, eta Zenbat Gararen laguntzat, hiru).

Alkoholiko Anonimoak: 32. urteurreneko egitarauaren barruan, 11:20ean irratisaioa daukie Arrate irratan.

AMOROTO

Lea ibaiko uren neurtegia ipini dabe Oletan

L.B.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen eta Ekintza Sailak Leako uraren emaria eta kalitatea neurtzeko estazioa zabaldu eban, atzo, Oletan. Beste alde batetik, Lekeitioko ur biltzailearen bigarren zatia be abantean dago atzotik.

Lea ibaia Oletatik igaroten danean daroan ur emaria zein dan jakiteko erabiliko da neurtegia. «Helburua, gure ibaiaren egoera zein dan jakitea da, eta urboladetan urak hartzen dituan mailak, erabili ahal diran ur baliabideak eta uretako egiturak eregitoko datuak jasotea be bai, ubideraketak eta zubiak egineran, esate baterako», azaldu dabe.

Onenetakoa

Bizkaian 29 estazio dagoz sare hidrologikoaren barruan, eta Foru Aldunditik adierazo dauenez, Leakoa onenen artean dago. Beharretan 270.455,44 euroko inbertsinoa egin dabe (45 milioi pezeta). Ganera, aisialdirako lekua be egokitu dabe.

Horrezaz ganera, Lekeitioko ur hondakinen biltzailearen bigarren fasea martxan ipini dabe. Mendexa, Amoroto eta Lekeitioko 550 bizilagunen ur zikinak hartuko ditu. 480.809,68 eurotik gorako aurrekontua euki dau (80 milioi pezeta).

MARKINA-XEMEIN

Propaganda eta sexismoa aztertuko ditue

L.B.

Uhagon Alkartea baldia eta bideo-emonaldia antolatu ditu *Propaganda eta sexismoa* gaitzat hartuta. Unibersidadeko irakasle Paki Juaristi izango da berbea hartuko dauena. Ekimena arratsaldeko 19:00etan izango da, Kultur Aretoan. Leku berean, I. Upin lehiaketako sari banaketara izango da, hilaren 11n, 12:00etan.